

Galdetuz gero, Koldo Zuazo EHUKo filologia irakasle eibartarrak gaur egun erabiltzen ditugun euskarazko berba aldaera asko erdi-aroan Gasteizen (mendebaldekoak) eta Iruñean (ekialdekoak) sortutakoak direla erantzungo liguke ([Euskalkiak](#), 2014, Elkar). Zergatik han? Bada botere (adib., apezpikutegia) eta merkatu gune zentralak zirelako: bertara biltzen zen jendea, bertan zeuden elkarrizketa interesgarrienak eta bertatik zabaltzen ziren berritasunak herri txikiagotara.

Gaur egun jendea eta elkarrizketak non zentralizatzen diren itaunduz gero gutako inork ez luke zalantza egingo: Interneten. Azkenengo bi hamarkadetan badira hainbat hitz eta aditz handik eguneroko hizkuntzan txertatu direnak, *googleatu* izan liteke adibide paradigmaticoa. Gure filologoek, baina, egin dute gogoeta: *to google* edo *googlear* erdal erreferenteak behar ditu lehendabizi euskaldunak ostean *googleatu* erabiltzeko. Lerro honetatik, berriki zabaldu da sareetan RAEk arrobar (@-tik) onartu duela gaztelaniaz, erdal bizilagunek badakite propaganda egiten. Arin proposatu dugu kalkoa:

«Urliak sandia abildu / abildutu / abilarazi du»? Ala «aipatu»-rekin konformatuko gara gu?

(via [@desplazatua](#)) <https://t.co/HCqVfLaKAZ>

— Garikoitz Knörr (@garikoitz) [December 1, 2017](#)

etzi.pm
ETZIKUTUNA

Galdera hauek azkenengo erregura garamatzate: izango al du euskarak erdi-aroko Gasteiz edo Iruñea pareko hiribildurik Interneten? Sortuko dugu berezko hizketa freskorik?

Bada esperantzarik txikitik. Bosturteko bat joan da *Twitter*-herriak aditz trinkoen sukarra berpiztu zuenetik, badakizue, 'joan da' beharrean 'doa' bezala '*me la suda*' ordez 'dizerdit' [zieten txoro horiek](#). Beste hainbeste denbora, [Hitzokei](#)-ri esker milaka euskarazko hitz zoro berri sortu ditugula; azaroko bat etsenplu:

SEXUALKIA: hizkera erotikoa [#hitzokei](#)

— Idoia Torregarai (@bootxo) [November 27, 2017](#)

Handirako hordagorako, eskari bat UZEI terminologia-lexikografia zentroari eta Euskaltzaindiari proposamen formatuan: era ofizialean amaitzear dagoen urteak eman dituen erantzuteko asmatu ditugun hitz eta aditzen zerrendatxo bat zabalduko balitz?